

Denboraren makina
Faraoi
madarikazioa

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Thesi
Pirinioetako
zeharkaldia I:
Hendaia-Elizondo

ARGIA

erdiko kaiera

kultura eta aisia

Ondare artistikoa Norena da altxorra?

Grezia, Egipto edo Babilonia zaharretik ekarritako altxorrak, gatazken ondorioz gerrako sari gisa eskuratutako artelanak, jatorrizko lurraldean baliabiderik ez omen eta beste leku batera eramandako ondasun arkeologikoak... Batzuen ustez lapurreta hutsa, lan horiek babesteko modu bakarra besteentzat. Kasu batzuetan zilegitzat hartua, bidegabekeria izugarria besteetan. Edonola ere, konponbide errazik ez duen arazo korapilatsua: nor da ondare artistikoaren jabea?

NERE LUJANBIO

British Museumekeo ataria. Hainbat herrialdetako ondare artistikoa dago Londresko museoan





Seleneren Zaldia izenez ezaguna den eskultura Londresko British Museum-en dago. Atenasko Partenoitik eraman zuen hara Lord Elgin enbaxadore britainiarrak

Museoak eta zurikeria

JACQUES GOUDSTIKKER arte-merkataria eta bildumazalea zen; judutarra. 1940an Herbehereetatik alde egin zuen, nazien inbasiotik ihesi. Baina bidean hil egin zen, milatik gora artelanez osatutako bilduma bere oinordekoen eskuetan utziz. Oinordeko horiek ordea, ez zuten bilduma babesterik izan eta, huskeria baten truke, gobernu nazi berriari saldu behar izan zioten. 2006. urtean Herbehereetako gobernuak gaur egun hainbat museotan sakabaturik dauden artelan horietako batzuk familiari itzultzea ebatzi zuen. Goudstikkerren senideek urte luzez iraun duen borrokaren fruituak jaso zituzten horrela. Dena den, bildumaren zati handi batek oraindik munduan barna jarraitzen du, hainbat museotan barreiaturik.

Askoren artean kasu bat da, inolaz ere ez bakarria. Azken urteetan, zalaparta handia eragiten ari dira batean eta bestean sakabana-

turik dagoen ondarea “jatorrizko lekura” itzultzeko eskariak. Batzuetan arazo handirik gabe itzuli izan zaizkio eskatzaileari, baina askotan artelan horiek objektua bera baino askoz ere esanahi eta pisu handiagoa dute, eta bidezkoa denaz edo ez denaz harago, interesak, interes asko daude tartean. Ez da, beraz, konponbide erraza duen kontua.

Kolonialismoak, gerrek, inbasioek eta abarrek artelanak bidaiari bihurtu izan dituzte aspaldidanik. Izan ere, jatorrian museo asko eta asko etsaiari, edo inbaditutako herriari ostutako altxorrek erakusteko guneak besterik ez ziren. Urteak igaro ahala izaera hori estaltzen edo gutxienez apaintzen saiatu izan dira, ondare hori herri azpigaratuetan utzi izan balitz honezkero galduta izango zela edo heziketarako eta ikerketarako ezinbesteko tresna izan dela argudiatuz.